

GEURIEN BE BAI

8. zenbakia | 2013ko negua

GEURIEN
be BAI

Geurien
be BAI

GEURIEN
BE BAI

Geurien
be BAI

GEURIEN
BE BAI

GEURIEN
BE BAI



ABENDUAREN 1EAN OSPATU GENUEN EUSKARAREN EGUNA, BERBA ETA KAFAA EKIMENERA HURBILDU GINEN GUZTIOK. GIRO EDERREAN, BI GAI LANDU GENITUEN EKITALDIAN:

Euskararen Plan Estrategikoa:

- Parte hartu duten herritarrek kontatu ziguten zer egiten egon diren eta aurrera begira zer egin gura den.

Geurien be bai egitasmoa:

- Udalerriko eragileek egindako lana ezagutu eta guztion artean Bermeo zelan berotu erabaki genuen.

Hainbat eta hainbat ideia jarri ziren mahai gainean, hona hemen adibide batzuk:

- **Merkataritzan:** gehiago saltzeko, euskara erakargarria dela zabaltzea.
- **Turismoan:** publizitatea euskaraz (ere) egitea.
- **Zerbitzu-enpresetan:** zerbitzu-enpresetako langileak animatu udalak ematen duen zerbitzua eskatzera eta erabiltzera (kartel aldakorrak sortzeko, bisita txartelak euskaratzeko, erantzungailua euskaraz ipintzeko, euskarazko webguneak sortzeko...).
- **Kirol-taldeetan:** liderrek euskara bultzatzea: gurasoek, entrenatzaileek, zuzendaritzek...
- **Elkarteetan:** elkarteak euskaraz lan egiteagatik zoriondu egin behar ditugu, eta besteentzako eredu izan daitezela sustatu.

Amaitzeko, saioa hainbat **esaldiren bidez** laburbildu genuen:

- Euskera geurea da, aurrera eutsi.
- Mundu handi bat mundu txiki askogaz eginda.
- XXI. mendera heldu gara, ez dugu gure hizkuntza, hortaz, galduko.
- Egin dezagun barre euskeraz.

MOTORRAK BEROTZEN

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Euskararen Plan Estrategikoa egiteko hainbat herritar eta gizarte eragile deitu zituen Udalak eta erantzun ezin hobea eman zuten. Euskara geure herrian zertan den aztertzeke, iritzia emateko, informazioa jasotzeko, prest egon dira prozesuan parte hartu duten herritar guztiak.

Garrantzitsua da jakitea zer egoeratan dagoen gaur egun euskara, baita azken urteetan egindako lanaz hausnartzea ere, aurrera begirakoak hobeto zehazteko eta hori bideratu gura izan du Udalak.

Horrela, 2012ko maiatzean diagnostikoa aztertu egin zen (lau lan-mahai eta Aholku Batzordearen bidez) eta ekainean aurrera begirako lan-ildoak, helburuak eta esparruak zehaztu ziren.

DIAGNOSTIKOAREN ZERTZELADAK

- 1 Bermeoko herritarrek euskaraz badakite, 10etik 7k badaki, beste 2k ulertzen du eta batek ez du ulertzen. Horrek esan nahi du, aukera ona dagoela euskara erabiltzeko.
- 2 Bermeotar askok euskara erabiltzen dute egunerokotasunean; beste askok, ostera, ez. Erabilerak azken urteetan beheranzko joera dauka, kale neurketaren emaitzak erakusten dutenez, adin-tarte guztietan igarzen da beheranzko joera hori.
- 3 Aldeko jarrerak eta sentimendua badago.
- 4 Herritarren sare zabala ari da lanean berreskuratze lanetan. Potentzial handia dago.
- 5 Kontzientzia indartu beharra ikusten da, aukera badago horretarako.
- 6 Euskaldunek euskaraz egin dezaten ohitura zabalteko aukera ikusten da.
- 7 Hainbat gizarte arlotan, euskararen presentzia ez da herritarren ezagutzaren bestekoa.
- 8 Guraso eta seme-alaben arteko erabilera indartu beharra ikusten da.

AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Udalan eta herrian, Bermeoko biztanleek euskaraz bizitzeko dituzten aukerak ugaritu gura ditugu, euskaraz dakitenek eta ikasten ari direnek nonahi eta edonoiz egiteko aukera izan dezaten, eta euskaraz ez dakitenek Bermeoko berezko hizkuntza euren gana dezaten.

KALE ERABILERAREN NEURKETAK ERAKUTSI DIGUNA

Neurtu egin da Bermeoko kaleetan zein hizkuntzatan egiten den berba eta horrek aukera eman digu une honetako argazkia ezagutzeko. **Horren arabera, egun Bermeoko kaleetan entzuten den euskararen tasa %36,6koa da.**

Bermeon ez ezik, Euskal Herriko hainbat herritan egin du neurketa Soziolinguistika Klusterrak. Bizkaian azken urteetan oso esanguratsua ez bada ere, beherako joera erakusten dute datuek eta Bermeoren kasuan, beherako joera hori nabarmenagoa da, hain zuzen, **azken bost urteetan behera egin baitu adin talde guztietan.**

2006. urtetik 2011ra jaitziera handia izan da, **%60,2tik %36,6ra.**

Umeek euren artean eta nagusiek euren artean gutxiago egiten dute euskaraz, umeek eta nagusiek elkarrekin berba egiten dutenean baino. Baina, haurrek nagusiei gehiago egiten diete euskaraz nagusiek umei baino.

Datuak baditugu, orain dagokigu ahalegina egitea, joera horren zergatia ulertzeko, bermeotarrek euskara gutxiago erabiltzea zerk eragiten duen jakiteko.

Beraz, bada **datozen urteetan erronka garrantzitsua izango dugu, udaletik eta herritik,** Bermeon euskararen presentzia handitzeko eta beherako joera horri galga jartzeko. Horregatik, oso garrantzitsua izango da non, zelan eta zertan lan egin zehaztea.

BAI,
ESAN?



▶ BAI, ESAN?

Kanpaina martxan jarri genuen 2012an Bermeoko merkatariek lehenengo hitza telefonoz euskaraz egitera animatzeko. Horrez gain, komertzioetako eta enpresetako erantzungailuak euskaratzeko aholkuak eman dizkiegu merkatariei eta enpresetako langileei.

▶ TERMOMETROA

Zein da Bermeoko euskararen temperatura? Aurten, hainbat esparrutan euskararen temperatura neurtu dugu. Hauxe da euskararen erabilera eta temperatura esparru horietako bakoitzean:

ELKARTEAK %95

MERKATARITZA %80

TURISMOA %66

ZERBITZU-ENPRESAK %65

KIROL-TALDEAK %56

MERKE-MERKE %41



▶ ERROXAPE ELKARTEKO KIDEENTZAKO TREBAKUNTZA-SAIOAK

Komunikazio-tailer legez planteatu genuen ikastaroa. Nor bere jakintza eta esperientziatik abiatu eta Euskararen Mundua besteena izateaz gain, norberarena ere badela ulertzea izan genuen helburu. Euskararen Mundua diogunean, bizitzan euskaraz jasotzen ditugun estimuluak zelan jasotzen eta zelan sentitzen ditugun aztertu dugu.

Azken ondorio nagusia izan da euskara guztiak balio bera eta handia dutela, eta leku diferentetakoak izan arren, bi aldeek borondatea izan badute, komunikazioa bermatuta dagoela. Saioan horixe frogatu dugu praktikaren bidez.

Hona hemen parte-hartzaileen iritzi eta ikuspegiak:

- Kostaldeko herrietako euskera hobeto entendiduten dogu barrukoa baino. Ondarroakoa ondo entendiduten dogu!
- Euskara Batua gatxa da, aditza batez be. Lobegaz ikasten dogu Batua.
- Batzuk gure euskera burla egiteko erabiltzen dabe: zarratu...
- Edonongo euskera entendidu lekide, ahaleginduta, lasai egonda eta eginda eta borondateagaz.



euskeraz
BIZI
GURA
DOGU

GEURIEN ZER? Herriko elkarteak zertan diren

TARASKA ATLETISMO TALDEA

Zein asmorekin sortu zen Taraska Atletismo taldea eta zein da bere jarduna?

Taraska Atletismo taldea sortu zen Bermeoko herritarrentzat kirol eskusiboan alternatiba bezala. Futbolearen, arraunean edo saskibaloian jokatzeko ezaugarri fisiko edo tekniko bereziak eduki behar dira eta herriko hainbat pertsona jardun horretatik kanpo gelditzen dira. Atletismoa eta bereziki korritzea, kirol osasuntsuak, egiteko errazak, merkeak eta adin gabekoak dira. Norberak jartzen ditu mugak eta noiz, non edo norekin egin.

Zein da Taraska Atletismo taldeak euskararekin duen harremana?

Nahiz eta atletismoa unibertsala eta mugagabea izan, gure ama hizkuntza euskara da eta kirola egiten dugunentzako elkartzeko gaituen lotura. Gure arteko harremanak, herritarrekin ditugun hartu-emanak eta ikasleekin ditugun jarduerak, euskaraz izaten dira. Azken finean euskaraz bizi nahi dugu, eta horretarako bizitzaren atal guztiak euskaraz izan behar dira.

Nola transmititu edo/eta zabaldu daiteke euskara kirolaren bidez?

Entrenamenduak, harremanak, aholkuak, lasterketen egutegiak, elkarbizitza, eta batez ere informazioak euskara hutsean izan behar dira. Kirolaren inguruko berriak, kalekoeta pertsonen arteko informazioak, edozein formatuko informazioak (paperezkoak, irratikoak, informatikaren bitartez...) euskara hutsean badira, errazago transmitituko da hizkuntza.

Zer hobekuntza egin daitezke Bermeon kirolarekin lotuta? Eta euskararekin lotuta?

Bermeoko kirol erakunde denak kriterio berdinak edukitzea da hoberena. Zutabe batzuk komunean jartzea eta denok betetzea, inguruko informazio zentroek ere bat eginez.



GURASO ELKARTEETAKO KIDEEKIN SOLASEAN...

Euskararen transmisioa hain garrantzitsua izanik, guraso-talde batekin hausnarketa saioak egin ditugu: guraso elkarteak eta gurasoek zer egin dezaket, Bermeon euskara indartzeko.

Bost goiz pasa ditugu elkarrekin, marrazkiak egiten, galdetegiak betetzen, ideiak sortzen...

Parte-hartzaileek oso ondo baloratu dituzte tailerrak eta aurrera begira ere lanean jarraitzeko gogotsu daude.

Hona hemen taldeak ateratako hainbat ondorio:

- Euskararen alde borroka egiteak nekea sortu du.
- Etxeko euskarak ez du prestigiorik.
- Umeekin, seme-alabekin euskaraz egiten dugu, gure artean gaztelaniaz.
- Lotsa dugu euskaraz (txarto) egiteko.
- Guraso-elkarteen batzarretan euskara ez da behar bezain beste erabiltzen.



Zer egin dezakegu arazo hauen aurrean?

- Gurasoek euren artean euskaraz berba egiteko ekimenak martxan jartzea: Gurasolagun.
- Euskararen egunean, gurasoek parte hartzeko espazioak sortzea: familia-ekintzak.
- Euskara entzun nahi ez duten erdaldunei aurre egiteko argumentuak landu eta herrian zabaltzea.
- Lotsa kentzeko mezua zabaltzea: ondo edo txarto, euskaraz egin.